

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

SEGURTASUN SAILA

5958

EBAZPENA, 2024ko abenduaren 20koa, Giza Baliabideen zuzendariarena, zeinaren bidez iragartzen baita noiz argitaratuko den Enplegu Publikoaren Atarian 2024ko abenduaren 20ko Ebazpena, Euskal Autonomia Erkidegoko Segurtasun Administrazioako zerbitzu laguntzaileetako lan-kontratuko langileen enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuetako hautatutako pertsonen behin betiko zerrenda eta esleitzekoak diren lanpostuak onartzen dituen.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Segurtasun Administrazioako zerbitzu laguntzaileen 2022rako Enplegu Publikoaren Eskaintza onartzen duen Erabakiarekin (Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren maiatzaren 24ko 53/2022 Ebazpenaren bidez argitaratua) eta Euskal Autonomia Erkidegoko Segurtasun Administrazioako zerbitzu laguntzaileetako enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuetarako oinarri orokorren 6.2 apartatuarekin (oinarri horiek Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuaren 2022ko abenduaren 5eko Aginduen bidez onartu ziren) bat etorritik, hau

EBAZTEN DUT:

Iragartzea 2024ko abenduaren 27an argitaratuko dela Enplegu Publikoaren Atarian, <https://www.euskadi.eus/enplegu publikoa/> helbide elektronikoan, Giza Baliabideen zuzendariaren 2024ko abenduaren 20ko Ebazpena, Euskal Autonomia Erkidegoko Segurtasun Administrazioako zerbitzu laguntzaileetako lan-kontratudun langileen enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuetan hautatutako pertsonen behin betiko zerrenda eta esleitzekoak diren lanpostuak onartzen dituen.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko abenduaren 20a.

(Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuak eskuordetuta, 2024ko urtarrilaren 23ko Agindua, 2024-02-02ko EHAA, zenbait eskumen gauzatzea segurtasun saileko giza baliabideen zuzendariari eskuordetzen diona).

Giza Baliabideen zuzendaria,
MIRIAM ANITUA ARANZABAL.